

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kulturak aholkularitza eskaintzen die Nafarroako toki-erakundeei haien artxibo digitalak ezartzeko

Administrazio-prozedurari buruzko 2015eko Legearen arabera, toki-erakundeei erreminta horiek izan behar dituzte 2018ko urria baino lehen

Osteguna, 2018.eko martxoak 22

Kultura Zuzendaritza Nagusiak – Vianako Printzea Erakundeak, Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuaren bitartez, zuzeneko aholkularitza eskaintzen die Nafarroako toki-erakundeei, dokumentuak eta espediente elektronikoak sortzeko eta horiek modu eraginkorrean kudeatzeko, artxibo digital seguru batean kontserbatzeaz gain. Administrazio-prozedurari buruzko 2015eko Legearen arabera, toki-erakundeei erreminta hori 2018ko urria baino lehen ezarrita edukitzeko lege-betebeharra dute.

Kulturak kontuan hartzen ditu dokumentu eta espediente elektronikoak behar bezala kudeatzeko eta kontserbatzeko legezko baldintzak; hori dela-eta, baldintza batzuk argitaratu ditu, erakundeei laguntzeko administrazio elektronikoaren aplikazio informatikoen ezaugarriak zehatz-mehatz identifikatzen, administrazio-izapideari hasiera ematen zaionetik, dokumentu-ondarea epe luzera kontserbatuta izatea ziurtatzearen. Baldintza horietan, taula bat agertzen da, erreminta informatikoen legezko aginduak betetzen dituzten egiaztatzeko, erakundeei produktuak eta zerbitzuak ebaluatzerakoan lana errazte aldera.

Dokumentuak lainoan kontserbatzeko zerbitzuak gero eta ohikoagoak direnez, baldintzetan jasotzen dira dokumentu elektronikoak ingurune horretan kudeatzeko nazioarteko jardunbide egokiekin bat datozen zuzentzarauak: zerbitzuaren iraunkortasuna eta bideragarritasuna, espedienteen eta horien metadatuaren eramangarritasuna eta kontserbazio ez iraunkorreko dokumentuak mugatzea, zientziaren egoerak oraindik ez baitu erabat ziurtatzen dokumentu elektronikoak epe luzera kontserbatzea.

Aholkularitza-zerbitzua servicio.archivos@navarra.es posta elektronikoaren bidez edo 848424609 telefonora deituta eskura daiteke.